

**SAN SEBASTIAN TURISMO-DONOSTIA TURISMOA, SA-ren 2022ko LAN-ESKAINZA PUBLIKOAREN MODALITATE EZBERDINEI DAGOZKIEN HAUTAKETA-PROZESU BEREZI ETA SALBUESPENEZKOAK.**

- **EGIAZTATUTAKO PUNTUAZIOAREN ZERRENDA ETA 1. HAUTAKETA-PROZESUAREN BEHIN-BETIKO AZKEN SAILKAPENA.**
- **EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEA.**

1. hautaketa-prozesuaren egiaztatutako puntuazioaren behin-behineko zerrenda eta behin-behineko azken sailkapenari buruzko erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, eta bat ere jaso ez denez, Hautaketa Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

**2024ko maiatzaren 27an argitaratutako 1. hautaketa-prozesuari dagozkion egiaztatutako puntuazioaren zerrenda eta azken sailakena behin-betiko bihurtzea.**

Aipatutako sailkapenaren arabera eskainitako plazarako **hautatutako pertsonak (1. postuan sailkatutako hautagaiak)**, aitortutako parte-hartze baldintzak eta merituak egiaztatzen dituen jatorrizko **dokumentazioa aurkeztu beharko du 2024ko ekainaren 3an, 9:00etan, Donostia Turismoaren bulegoetan.**

Egiaztapena egin ondoren, San Sebastián Turismo-Donostia Turismoa hautatutako pertsonarekin harremanetan jarriko da eskainitako lanpostua betetzeko, dagokion lanpostuan sartzeko izapideak betez.

Stua. Hautaketa Batzordea  
Donostian, 2024ko maiatzaren 31an